

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2019KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak eskatuta egin dugu txosten hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz (otsailaren 18ko 4/2005 Legea).

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea. Jarraibideak, zehazki, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko dira.

Eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko 2019ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da.

Beraz, xedapen arauemaile orokorra da, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz. Horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren araberako eraginari buruzko txostena egin du, I. eranskinean zehaztutako baldintzen arabera eta Lehenengo Jarraibideko 3. eta 4. apartatuetan zehaztutakoarekin bat etorritz.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu:

Aipatutako legearen aurreproiektuak generoaren arabera duen eraginari buruzko txosteneko edukia baloratu baino lehen, **aurretiazko hainbat gogoeta egingo ditugu**

prozesuari berari eta prozesua egiteko metodologiari buruz, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu:

Lehenik eta behin, ontzat ematen dugu, berriro ere, *Ogasun eta Ekonomia Sailak izan duen lidergoa* generoaren araberako eraginari buruzko txostena egiterakoan. Sail horrek, aurreko ekitaldietan egituratutako lan-prozedurarekin jarraituz, Jaurlaritzako ganierako sail guztiei eskatu die beren aurrekontu-programen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako helburu, ekintza edo jarduerak identifikatzeko, programa horien intentsitatea zein den axola gabe. Era berean, sailaren ahalegin apartekoa txalotu nahi dugu: baliabide ekonomikoak bideratu ditu sailari berari laguntza teknikoa ematera eta genero-ikuspegiaren araberako aurrekontuen gaineko berariazko prestakuntzara (IVAP arduratu da horretaz).

Halaber, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak diogenarekin bat, berebiziko garrantzia izan du Jaurlaritzako gainerako sailen lankidetzak. Guzti-guztietan, zuzendaritzek gogoeta egin dute aurrekontu-programetan, eta hainbat neurri ezarri dituzte beren helburuak eta ekintzak berdintasuna lortzeko helburu orokorrera egokitzeko. Lerroon bidez, generoaren araberako eraginari buruzko txostenean jasotakoarekin bat, Osakidetza lan-prozedura honetan sartu beharra dagoela azpimarratu nahi dugu. Edonola ere, barne-laneko prozesuak egiteko, berdintasuneko unitate guztien laguntza, aholkuak eta inplikazioa ezinbestekoak izan dira.

Halaber, azken urteetan aurrekontuen gaineko legearen aurreproiektuen gainean genero-eraginari buruz egin diren txostenak aztertzeari eta txostenok egiteko prozesuetan eskuratutako esperientziari esker, hobetu beharreko hainbat alderdi hauteman dira. Jaurlaritzaren ekintzarako hain esanguratsua den araudi honen ondorioz nahitaez egin behar izan da egokitzapen metodologikoa, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeari, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan ezarritakoaz harago. Horrenbestez, azken urteetan aplikatutako ikuspegi metodologikoa eta azterketa mota aldatu egin dira, aurrekontu-prozesuan mainstreamiga ezartzeko.

Esaterako, 2015. urtean, berariazko tresna bat diseinatu zen: «Aurrekontu-programen analisia, genero-ikuspegiaren arabera. P-Gen». Helburu bikoitza zuen horrek; batetik, hobekuntza-tresna izatea jarduketa publikoa emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko helburu orokorrera hurbiltzeko, eta bestetik, aurrekontu orokorretako genero-eraginari buruzko txostenerako informazioa hornitzea. Analisi-tresna hori onartu eta legezkotu zuen Gobernu Kontseiluak, eta, beraz, aurrekontuak egiteko administrazio-prozeduran txertatuta dago, eta Ogasun eta Ekonomia Sailak egindako jarraibide teknikoetatik bat da.

Aurtengo inprimakiko berritasunen artean (P19-Gen), inpaktu-txostenean adierazitakoak nabarmenduko ditugu:

- Hizkuntza argi eta didaktikoagoa erabili da.
- Berdintasuneko programa-manuen betetze-maila aztertu behar da, ez soilik lege-manuena; bereziki, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Plana eta sailen nahiz sektoreen berdintasun-planak (programen edukari eragiten dioten berdintasuneko betekizunak baldin badituzte).
- Lehen aldiz, prozesuan edo bere osotasunean genero-ikuspegiarekin diseinatu diren analisia, helburuak eta ekintzak hartzen ditu barnean.
- Funts publikoak jasotzen dituzten amaierako eta bitarteko antolakundearen analisia alde batera utzi du, antolakundeok berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta laguntzak hitzartzean hartzen dituzten konpromisoetan arreta jarrita.
- Aurrekontu-programak jasotzen duen aurrekontua identifika daiteke, gerora beste antolakunde batzuek betearaziko badute ere.

Aurrekontu-programaren analisiak agerian jarri du analisiaren arduratuko diren pertsonen prestakuntza eta gaikuntza eman behar zaizkiela. Hala, azken bi urteotan, txostenak zehaztu bezala, berariazko prestakuntza eskaini du IVAPek berdintasun-arloan, Euskal

Herriko Unibertsitatearen aholkuarekin. Lehen esan dugun moduan, sailak hartutako konpromisoa txalotzekoa da, lan-prozesu honi loturiko prestakuntzara eta gaikuntzara baliabideak bideratuta.

Edonola ere, ezin ahantz dezakegu ikaskuntza- eta hobekuntza-prozesu etengabe bat dela, eta, horri esker, eraginari buruzko lehen txostenetan berdintasun-politika espezifikoen analisi soila egitetik berdintasun-politika espezifikoak izan gabe generoarekin zerikusi duten aurrekontu-programa guztien balizko eragina aztertzea igaro gara. Horregatik guztiagatik, azpimarratzekoa da aurrerapauso kualitatibo hori, administrazio orokorreko gainerako politika publikoak generoaren aurrean neutroak ez direla agerian jartzeko, eta, beraz, generoan eragina dutela eta aztertu egin behar dela nabarmentzeko. Bidezkoa denean, gainera, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko edo/eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikusi beharko dira.

Genero-eraginari buruzko txostenaren edukiari dagokionez, edukiak ez dira sakon aztertu ahal izan, informazio-epea estuegia zelako. Edonola ere, hona hemen zenbait ohar:

- **Esparru arautzailean**, aipamen hau egitea proposatzen da: «*Genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko jarraibideak aipatu behar direla proposatzen dugu. Jarraibide horiek Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartu ziren 2012ko abuztuaren 21ean*». Nahiz eta txosten honek egokitzapen-lana egin duen generoaren araberako eragina aztertzeko formulazioaren bidez, jarraibide horietan ezarritakoa betetzen du.
- **EAEko diagnostiko sozioekonomikoa** aztergai duen atalak Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) webguneak aipatzen ditu, *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna* atala, baita Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen webgunea ere, zehazki, *Zifrak 2017*. *Emakumeak eta gizonak Euskadin* txostena. Txostenak dioen bezala, webguneok informazio egiazko eta

eguneratuagoa eskaintzen duten arren, etorkizuneko txostenetan genero-arrakala nagusiei buruzko ondorioen laburpena idaztea proposatzen dugu.

- **Gastuen analisisa** apartatuak bi azpiapartatu ditu; administrazioaren zerbitzupeko langile-gastua eta sailen eta beren aurrekontu-programen gastua:

Langileen gastuari dagokionez, sexuaren arabera banakatzen dira datuak txostenean, EAEko administrazio orokorraren zerbitzupeko langileak kontuan hartuta, eta genero-arrakalak hautemateko diagnostikotik eratorritako ondorio sorta bat ere ematen da. Hizpide dugun kapitulua kontuan hartuta, EAEko administrazioak berdintasuneko langile espezifikotara (berdintasuneko administrazio-unitatea, etab.) bideratzen duen aurrekontuaren datuak –sail bakoitzeko berdintasun-politika espezifikoen atalean daude jasota– hona ekarri beharko lirateke.

Sailen eta beren aurrekontu-programen gastua EAEko aurrekontu orokorraren eta administrazio nagusiaren, erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontuen datu banakatuetan islatuta dago. Halaber, zenbatetsi da 2019ko EAEko aurrekontu orokorren zein ehunekori egin beharko litzaiokeen genero-eraginari buruzko txostena: % **69ri**, alegia. Konplexua da kalkulu hori politika publikoetatik bereiztea. Dena den, etengabeko ikaskuntza- eta hobekuntza-prozesuaren emaitza da, horri esker igaro baikara eraginari buruzko lehen txostenetan berdintasun-politika espezifikoen analisi soila egitetik berdintasun-politika espezifikoak izan gabe generoarekin zerikusi duten aurrekontu-programa guztien balizko eragina aztertzea.

- Aurrekontu-programan generoarekiko lotura aztertuta, txostenaren arabera, aztertutako aurrekontu-programen aurrekontuaren % **99,87k** du lotura generoarekin. Alegia, aurreko ekitaldietan baino gehiago, nagusiki, P-Gen analisi-tresna menderatzen hasi garelako. Edonola ere, izugarri esanguratsua den datu horrek agerian uzten du aurrekontuak ez direla generoaren aldetik

neutroak programetako ehuneko oso altu batean, eta, beraz, programa horiek generoaren ikuspegitik landu ahal direla.

- Generoaren garrantziaren analisiari¹ dagokionez, txostenak dioten bezala, generoarekiko lotura duten aurrekontu-programa guztiak garrantziaren arabera sailkatu dira. Aurrekontu-programak garrantzi handikotzat sailkatzeko joera gero eta hedatuago dago. Esaterako, 2018ko aurrekontuen aldean % 28 igo da garrantzi handikoen kopurua, % 43tik % 72ra hain zuzen.
- Berdintasun-politika espezifikoetan identifikatutako zenbatekoa aurreko txostenetakoak baino handiagoa da. Hazkunde horren zergatia, batik bat, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak «*familia- eta lan-bizitza bateratzeko laguntzak*» ematera bideratuko duen kopuruan datza. Halaber, apartatu horretan, txostenak ia sail guztiek aurreko ekitaldien aldean egindako hobekuntzak aipatzen ditu (esaterako, berdintasun-ikastaroak ez kontuan hartzea baimendutako gehieneko prestakuntza-ikastaroen baturan), baita hurrengo ekitaldietan kontuan hartu eta hobetu beharreko alderdiak ere (programen arduradunak zailtasunak izan dituzte informazioa biltzeko).
- Sail bakoitzaren aurrekontu-programa dela eta, eraginari buruzko txostenak sail bakoitzaren analisi zehatza egin du. Horrenbestez, ez dugu sakon aztertuko sail bakoitzarentzako informazioa, baina alderdi esanguratsu batzuk aipatuko ditugu, berdintasun-politiketan aurrera egitea direlako:
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintzetara berariaz bideratutako aurrekontua % 6,3 areagotzea.
 - Bi berdintasuneko administrazio-unitate sortu dira 2018an; bata, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, eta bestea, HABE

¹ Garrantziaren sailkapena: handia-ertaina-txikia

erakunde autonomoan, hauek betez: otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 11. artikulua eta Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-politikak sustatzeko eta koordinatzeko ardura duten administrazio-unitateak eta horien erakunde autonomo nahiz ente publikoak arautzen dituen azaroaren 27ko 231/2007 Dekretuaren 3. artikulua². Gainera, ekitaldi honetan berdintasuneko administrazio-unitate berri bat sortzea aurreikusi da IVAPen. Dena dela, oraindik orain, bi erakundetan falta da berdintasuneko administrazio-unitateak sortzea eta arestian aipatutako berdintasuneko manuak betetzea: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian eta ETS - Eusko Trenbide Sarean.

- Aurrekontu propioa gero eta sail gehiagora hedatzea, berdintasuneko administrazio-unitateetarako, berdintasunerako ekintza zehatzak kudeatu eta betearazi ahal izateko. Hala, betetzat eman dezakegu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2016ko uztailaren 21eko erabakian hartutako konpromisoa: *«Aipatutako administrazioek berdintasun-politika bideratutako aurrekontu-ehunekoa gero eta handiagoa izatea»*.

Aipatzekoa da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak nabarmen areagotu duela berdintasuneko administrazio-unitatera bideratutako aurrekontua; 5.000 eurotik 40.000 eurora igaro da.

Aurreko ekitaldietan bezala, proposatutako hobekuntza-neurrietako bat da lan-prozesua aurreratzea, hala aurrekontu-programen analisian, nola generoaren araberako eraginari buruzko txostena egitean, Institutu honi lehenago egin ahal izan dakion txosten-eskaera eta denbora nahikoa egon dadin analisi ahalik eta zehatzena egin dezan, horrek bide emango digulako hobekuntza-neurri erabilgarriak proposatzeko. Horrenbestez, *genero-eragina aurretiaz ebaluatzeari, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko*

² 213/007 Dekretua. 3 artikulua: Administrazio-unitateak erakunde autonomoetan eta ente publikoetan.

1. - Sail bakoitzeko unitatez gain, erakunde autonomo eta ente publiko hauetan ere berdintasun-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko ardura izango duten administrazio-unitateak egongo dira:

eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetako bigarrenaren bigarren zenbakian adierazitakoa bete dadila proposatzen dugu. Horren arabera, izan ere, Emakundek txostena igortzeko epea hamar egun baliodunekoa izan beharko litzateke.

Gainera, beharrezkoa da didaktika bat sortzea, azterketan parte hartzen duten agenteek berariaz uler dezaten helburua berez ez dela formularioa betetzea, baizik eta memorien edukian hobekuntzak identifikatzea, baita, batez ere, baliabideen banaketan ere, politikek modu parekideagoan eragin dezaten emakumeen eta gizonen bizitzetan.

Lege-aurreproiektuaren eta genero-eraginaren txostenaren idazkerari dagokionez, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin da oro har, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan agintzen denarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 23a.